

Zk-2935

AGINDUA, 1998ko ekainaren 12koa, Kultura sailburuarena, dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzen dituenak.

Martxoaren 1eko 47/1988 Dekretuaren Azken Xedapenetako Lehenengoak, susperketa soziokulturaleko eskolak onartzen eta arautzen dituenak, ahalmena ematen dio Kultura Sailburuari dekretua garatu eta gauzatzeko beharrezko arauak eman ditzan.

Dekretu horren 7.1 atalaren arabera, Kultura Sailak ezarriko ditu onartutako eskolek ikasturte bakoitzean eman beharko dituzten gaikuntzarako gutxienezko egitarauak. Horrenbestez, eta Dekretu hori garatzeko, Agindu honen bidez dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezarri dira, haien prestakuntza bermatuko duen arautegia ezartzearen.

Apirilaren 7ko 71/1998 Dekretuak aurrez aipatutako beste dekretua aldatzen du eta susperketa soziokulturaleko eskolen onarpena arautzen du. Horrela, 71/1998 Dekretuaren inspirazio-oinarriari jarraituz, Agindu honek arautzen dituen dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak bat datoz bolondres-entitateen agente eta bitartekarien heziketa eskaerekin, kontuan harturik komunitatearen gizarte-, kultura- eta heziketa-garapenaren aldeko eskuhartze prozesuak bideratzen dituztela bereziki harremanezkoak diren partehartze estrategien bidez.

Horrenbestez,

XEDATU DUT:

1. atala.– Xedea.

Agindu honen xedea hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, bertan lan egiten duten susperketa soziokulturaleko eskolek bete behar izango dituzten gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzea, dinamizatzaile soziokulturalen prestakuntzarako planak eta ikastaroak ofizialki onartuak izan daitezen. Hori guztia ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituko dio.

2. atala.– Prestakuntzarako urratsak eta orduak.

Dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako ikastaroak, gutxienez, honako urratsak eta orduak izango ditu:

- a)– Prestakuntza teorikoaren urratsa: 200 ordu:
 - 1.– Teoria arloa (75 ordu)
 - 2.– Teknika eta baliabideen arloa (125 ordu)
- b)– Prestakuntza praktikoaren urratsa: 200 ordu.

Nº-2935

ORDEN de 12 de junio de 1998, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen los programas mínimos de formación para dinamizadores/as socioculturales.

La Disposición Final Primera del Decreto 47/1988, de 1 de marzo, por el que se regula el reconocimiento de escuelas de animación sociocultural, faculta al/la Consejero/a de Cultura para dictar las normas necesarias en orden a su desarrollo y ejecución.

Así pues, en desarrollo del citado Decreto, que en su artículo 7.-1 dispone que el Departamento de Cultura establecerá los programas mínimos de formación que las escuelas reconocidas habrán de impartir en cada curso, mediante la presente Orden se establecen los programas mínimos de formación para dinamizadores/as socioculturales con la finalidad de establecer un marco normativo que garantice su debida preparación.

A tenor de los principios inspiradores del Decreto 71/1998, de 7 de abril, de modificación del anteriormente citado Decreto por el que se regula el reconocimiento de escuelas de animación sociocultural, los programas mínimos de formación para dinamizadores/as socioculturales regulados mediante la presente Orden responden a las demandas formativas de los agentes y mediadores de las entidades de voluntariado, quienes, desde estrategias de intervención preferentemente relacionales, propician procesos de participación en favor del desarrollo social, cultural y educativo de la comunidad.

En consecuencia,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden el establecimiento de los programas mínimos de formación a cumplir, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por las escuelas de animación sociocultural operantes en su ámbito territorial, para el reconocimiento oficial de los planes y cursos de formación de dinamizador/a sociocultural, de conformidad a lo establecido en los artículos siguientes.

Artículo 2.– Etapas de formación y asignación horaria.

Cada uno de los cursos destinados a formar dinamizadores/as socioculturales constará, como mínimo, de las siguientes etapas y asignación horaria:

- a)– Etapa de formación teórica. 200 horas:
 - 1.– Área teórica (75 horas).
 - 2.– Área técnica y de recursos (125 horas).
- b)– Etapa de formación práctica. 200 horas.

3. atala. – Ikastaroen antolaketari buruz.

1.– Dinamizatzaile soziokulturalaren diploma lortzeko Agindu honek erregulatzen dituen prestakuntza-planek ezin izango dute, inola ere ez, beste curriculum-diseinuaren mota baten barnean egon; eta beti ere beren berezitasuna gorde behar izango dute, edukietan zein ematerakoan.

2.– Ikastaroa hasiz gero, matrikulatuen zerrenda itxi egingo da; beraz, ezin izango da ikasle berririk sartu.

3.– Ikasleak ikastaroa uzten badu edo aurreikusitako ordu-kopuru guztia betetzen ez badu, ezin izango du kurtsatutako orduak ikastaro berri batean baliozko-tu.

4.– Derrigorrezkoa da ezarritako gutxienezko ordu guztietan bertaratzea. Halere, nahitaezko arrazoiengatik ikasleak bertaraterik izango ez balu, behar bezala justifikatu eta galdutakoa modu egokian errekupearatu behar izango luke.

4. atala. – Ikastaroen aldizkakotasuna.

Dinamizatzaile soziokulturalentzako gaikuntza-ikastaroak emateko onartutako eskolek gutxienez hiru urte behin eman beharko dute ikastaroa.

5. atala. – Prestakuntza teorikoaren urratsa.

1.– Urrats teorikoaren gutxienezko prestakuntza-egitarauak honako gutxienezko arlo, gai eta orduak izango ditu:

A).– Arlo teorikoa: 75 ordu:

Gaiak:

1.– Partehartzearekin lotutako oinarriak:

a) Euskadiko gizarte-, politika-, eskuduntza- eta erakunde-eremuak (10 ordu).

b) Berariazko eremua: gizakia eta gizartea (10 ordu).

2.– Susperketa soziokulturala (30 ordu).

3.– Partehartze, elkargintza eta bolondres mugimendua (15 ordu).

B).– Teknika eta baliabideen arloa: 125 ordu:

Gaiak:

1.– Soziologia (15 ordu).

2.– Gizarte-psikologia eta talde-dinamika (35 ordu).

3.– Entitate baten kudeaketa eta antolaketa (25 ordu).

4.– Gizartean iharduteko egitasmoak planifikatu, gauzatu, sustatu eta baloratzea (20 ordu).

5.– Gizarte-garapenerako teknikak (10 ordu).

2.– Prestakuntza-programaren egokitzapena erraztearen eta gaiak garatzeko orduan gerta daitezkeen bikoiztasunak saihestearren, eskola bakoitzak berak osa-

Artículo 3. – Aspectos organizativos de los cursos.

1.– Los planes formativos dirigidos a la obtención del diploma de dinamizador/a sociocultural regulados mediante la presente Orden no podrán estar, en ningún caso, incluidos en ningún otro tipo de diseño curricular, debiendo observarse en todo momento su especificidad, tanto en los contenidos como en su impartición.

2.– Una vez iniciado un curso, se entenderá dada por cerrada la lista de matriculados/as, no pudiéndose incorporar nuevos/as alumnos/as.

3.– En caso de abandono o de no completar el/la alumno/a el número total de horas previstas para el curso, no existirá posibilidad de convalidación de las horas realizadas para un nuevo curso.

4.– La asistencia al total del horario mínimo asignado es obligatoria. Si se produjera alguna ausencia obligada por parte algún/a alumno/a, será necesario justificarla debidamente, en cuyo caso deberá ser recuperada adecuadamente.

Artículo 4. – Periodicidad de los cursos.

Los cursos de formación de dinamizadores/as socioculturales a impartir por cada una de las escuelas reconocidas tendrán una periodicidad mínima de un curso cada tres años.

Artículo 5. – Etapa de formación teórica.

1.– El programa mínimo de formación de la etapa teórica constará de las siguientes áreas, materias y asignación horaria mínima:

A).– Área teórica: 75 horas:

Materias:

1.– Referentes para la intervención:

a) Marco competencial, sociopolítico e institucional de Euskadi (10 horas).

b) Marco específico: persona y sociedad (10 horas).

2.– Animación sociocultural (30 horas).

3.– Participación, asociacionismo y voluntariado (15 horas).

B).– Área técnica y de recursos: 125 horas:

Materias:

1.– Sociología (15 horas).

2.– Psicología social y dinámica de grupos (35 horas).

3.– Gestión y organización de una entidad (25 horas).

4.– Planificación, elaboración, dinamización y evaluación de proyectos de intervención social (20 horas).

5.– Técnicas de desarrollo comunitario (10 horas).

2.– En aras de facilitar una mayor adaptación del programa formativo, así como para evitar posibles duplicidades en el desarrollo de las materias, cada una de

tuko du gaiei dagokien ordu-kopurua, aurreko lerroal-deko alor bietan ezarritako gutxienezko ordu guztiak bete arte.

6. atala. – Urrats teorikoaren antolaketari buruz.

1. – Prestakuntza teorikoaren urratsa ikasturte batez soilik eta jarraian izango da.

2. – Konputatuko den prestakuntzako ordu-kopurua hau izango da: gutxienez saio bakoitzeko bi ordu, egunean gehienez zortzi ordu bete arte.

3. – Konputatuko diren prestakuntzako jarraiko eskola-egunak lau izango dira.

4. – Ikasgela eta ikastaro bakoitzeko ratioa gutxienezko hamar eta gehienezko hogeitabost ikaslekoa izango da. Eskola bakoitzak ezarriko ditu egokien deritzen bideak ikasleek beren prestakuntzan partehartze aktiboa izan dezaten, banaka zein taldeka.

7. atala. – Urrats praktikoa.

Prestakuntza praktikokoaren urratsa bolondres gisa egingo da, eta susperketa soziokulturalaren edo gizarte-garapeneraren alorrean iharduteko proiektu zehatz baten arabera izan ere. Proiektu hori ikasleak berak egindakoa izango da, eskolako irakaslearen aholkularitza eta zuzendaritzapean tutoretza-sistemaren bitartez. Urrats honek gutxienez 200 ordu iraungo du, honelako azpiurratsetan banaturik:

a) Iharduketarako proiektua gauzatzea.

Ikasle bakoitzak iharduketarako proiektua egingo du. Proiektu hori ez da bat etorriko ikaslearen eguneroko iharduerarekin; halere, gauzatu ahal izango du proiektua partaide den organizazioan edo horren bitartez. Proiektua gauzatzeko konputatuko diren gehienezko orduak 40 dira.

b) Proiektua gauzatzea.

Proiektua egina, gauzatu egingo da susperketa soziokulturaleko edo gizarte-garapenerako elkarte, zentro, ekipamendu edo mugimendu baten. Horretarako konputatuko diren gehienezko orduak 120 dira.

c) Praktikak baloratzeko txostena egitea.

Ikasleek, banaka, txosten bat egin beharko dute. Bertan, egindako praktiken laburpena eta balorazio pertsonala azalduko dira. Txostena tutoreak ebaluatuko du. Horretarako konputatuko diren gehienezko orduak 40 dira.

8. atala. – Ebaluaketarako irizpideak.

1. – Ikastaro bakoitza baloratzeko orduan eskolak, gutxienez, hurrengo irizpideak erabili beharko ditu:

las escuelas deberá completar el número de horas que se destinan a las materias, hasta alcanzar el total mínimo exigido para cada una de las dos áreas descritas en el párrafo anterior.

Artículo 6. – Aspectos organizativos de la etapa teórica.

1. – La etapa de formación teórica se realizará únicamente a lo largo de un curso escolar continuado.

2. – El número de horas mínimas computables de formación será de dos horas por sesión hasta un máximo de ocho horas diarias.

3. – El número máximo de jornadas continuadas computables de formación será de cuatro días.

4. – El ratio por aula y curso será de un mínimo de diez y un máximo de veinticinco alumnos/as, para quienes cada escuela establecerá los mecanismos que crea más oportunos dirigidos a propiciar la participación activa en su propia formación, tanto a nivel individual como grupal.

Artículo 7.

– Etapa práctica.
La etapa de formación práctica se realizará, como voluntario/a, conforme a un proyecto concreto de intervención en el ámbito de la animación sociocultural o el desarrollo comunitario elaborado por el/la alumno/a bajo el asesoramiento y supervisión del profesorado de la escuela mediante el sistema de tutoría, con una duración mínima total de 200 horas, distribuidas en las siguientes fases:

a) Elaboración de un proyecto de intervención:

Cada alumno/a elaborará un proyecto de intervención, que siempre deberá ser diferente a su práctica cotidiana, aunque sí lo podrá poner en práctica en la organización a la que pertenezca o a través de ella. El número máximo de horas computables para la elaboración de dicho proyecto será 40.

b) Realización del proyecto.

El proyecto, una vez elaborado, se llevará a cabo en el seno de una asociación, centro, equipamiento o movimiento de animación sociocultural o desarrollo comunitario. El número máximo de horas computables para tal fin será 120.

c) Elaboración de una memoria evaluativa de las prácticas.

Cada alumno/a elaborará individualmente una memoria, que comprenderá una síntesis y una valoración personal de las prácticas realizadas, para su evaluación por el/la tutor/a. El número máximo de horas computables para tal fin será 40.

Artículo 8.

– Criterios de evaluación.
1. – Cada escuela deberá aplicar, a la hora de llevar a cabo la evaluación de cada uno de los cursos, como mínimo, los siguientes criterios:

a) Ikaslearen partehartzea, hauen arabera ebaluatutako:

- Bertaratzea.
- Aprobetxamendua.
- Ikasle bakoitzaren partehartzearen kalitate maila.

b) Ikasleak irakatsitako edukiak bereganatzea. Lanak, ariketak edo etengabeko ebaluaketaren probak egin ez ebaluatuko da, horietakoren bat idatzizkoa izan behar delarik.

c) Ikaslearen gaitasuna. Gaitasun hori dinamizatzaile soziokulturala izateko ahalmen eta jarrera pertsonalen batura gisa ulerturik.

2.- Eskumena duen organoak proposatu, iradoki eta behartu ditzake ere eskolak ebaluaketa-irizpide horien gauzatze zehatza aldatzera, haren ustez emaitza horiek proposatutako helburuei iruzur egiten badiete.

3.- Urrats teorikoaren bukaeran, matrikulatutako ikasle batek gaitutako ez balu, ezetsia izango litzateke eta urrats praktikorik ezin izango luke egin edo, egin ez gero, ez litzaioke urrats praktikoa egindakoa konputatuko.

4.- Urrats praktikoa bukaeran, matrikulatutako ikasle batek gaitutako ez balu, hasieran ezetsia izango litzateke, baina aukera izango luke praktikak errepikatu ahal izateko ikastaroaren ikastaldi beraren barne. Horretan ere gaitutako ez balu betiko ezetsia izango litzateke.

9. atala. - Emango den ikastaro bakoitzaren proiektua aurkeztu eta izapidatzea.

1.- Ikastaro bakoitzaren matrikula-epa hasi baino gutxienez aurreko 15 eguneko epean, eskolak hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du, ikastaroaren egokitasuna egiaztatzeko:

- a) Ikastaroaren modalitate eta araubidea.
- b) Alor eta ikasgaiak, dagokien ordu-kopurua zehaztuz.
- c) Ikastaroaren irakasleen zerrenda.
- d) Ikastaroa burutzeko aurreikusitako lekua eta datak, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuz.
- e) Ikasleei urrats praktikoa aurrera eramateko eskainiko zaizkien aurreikusitako toki eta entitateak.

2.- Ezetsi egingo da edozein ikastaro-proiekturik baldin eta eskolak aurretik egindako ikastaroen diplomien eskaria behar bezala egin gabe badu edota ikastaro horientzako Agindu honek eskatzen duen dokumentazioa aurkeztu gabe utzi bazuen.

3.- Matrikula-epa bukatzen denetik hasita gehenez 10 eguneko epean, eskolek matrikulatuen behin betiko zerrenda bidaliko dute, erabilitako hautaketa-irizpideekin batera.

a) Participación del alumno/a, evaluada en función de:

- La asistencia.
- El aprovechamiento.
- La calidad de la participación de cada alumno/a.

b) La asimilación por cada alumno/a de los contenidos impartidos, valorada mediante la realización de trabajos, ejercicios o pruebas de evaluación continuada, alguno de los cuales deberá ser escrito.

c) La idoneidad del alumno/a, entendida como el conjunto de aptitudes y actitudes personales para actuar como dinamizador/a sociocultural.

2.- El Órgano competente podrá proponer, sugerir e incluso obligar a las escuelas a modificar la aplicación concreta de dichos criterios de evaluación, cuando estime que, con la misma, se defraudan los objetivos propuestos.

3.- En el supuesto que el/la alumno/a matriculado/a fuera calificado/a como no apto/a al término de la etapa teórica, quedará desestimado/a y no podrá pasar a realizar la etapa práctica o, en su caso, no se computará lo realizado respecto a la etapa práctica.

4.- En el supuesto que el/la alumno/a matriculado/a fuera calificado/a como no apto/a al término de la etapa práctica, quedará desestimado/a inicialmente, pudiendo repetir sus prácticas, dentro del periodo hábil del curso. En caso de ser calificado/a nuevamente como no apto/a, será desestimado/a definitivamente.

Artículo 9. - Presentación y tramitación del proyecto de cada curso a impartir.

1.- En el plazo mínimo de 15 días con anterioridad al comienzo del plazo de matriculación para cada uno de los cursos, cada escuela presentará, al objeto de comprobar su adecuación, la siguiente documentación:

- a) Modalidad y régimen del curso.
- b) Materias y temas a impartir, incluyendo su correspondiente asignación horaria.
- c) Listado del profesorado del curso.
- d) Lugar y fechas previstas de realización, especificando el día de comienzo y de finalización del curso.
- e) Lugares y entidades previstas ofrecer al alumna-do para la realización de la etapa práctica.

2.- Se rechazará el proyecto de cualquier curso en aquellos casos en los que la escuela no haya presentado debidamente la solicitud de diplomas o tenga pendiente la entrega de documentación requerida en la presente Orden respecto a cursos realizados con anterioridad.

3.- En un plazo no superior a 10 días desde la finalización del plazo de matriculación, cada escuela remitirá el listado definitivo de matriculados/as, así como los criterios de selección aplicados.

10. atala. – Diplomak eskatu eta izapidatzea.

1.– Prestakuntza-ikastaroaren bukaeran, eskolek, dagozkien diplomak emateko eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Burututako ikastaroaren oroitza-txosten orokorra, eta horren barne:

- Irakatsitako arloak eta gaiak, dagozkien orduekin.
- Ikastaroaren irakasleen zerrenda.
- Ikastaroa egin den lekua eta datak.
- Ebaluaketa-irizpideen gauzatze zehatza, urrats teorikoarena zein praktikoarena; ikasle bakoitzak egindako praktiken txostena; eta azken ebaluaketarako erabiltako irizpideen azalpena.

b) Ebaluaketa-akta, hauek zehaztuz:

- Matrikulatuen hasierako zerrenda eta hauek hautatzeko irizpideak.
- Bukaeran gainditutako ikasleen zerrenda
- Bukaeran gainditu ez duten ikasleen zerrenda.
- Ebaluatu gabeko ikasleen zerrenda, urrats praktikoak bukatu gabe izateagatik, horrela badagokio.

2.– Diplomak eskatzeko epea kurtsoa bukatu eta handik gehienez bi hilabetekoa izango da. Hala ere, dagozkion aktan esplizitoki horrela agertutako ikasleen kasuan, epe hau atzeratu daiteke gehienez ere hurrengo urtearen abenduaren 31 arte. Azken epe hau bukatuz gero, eta diplomen eskaria behar bezala aurkeztuko ez balitz, ez litzateke inongo ondorengo eskaririk onartuko, eta, ondorioz, horren eragina duen ikaslea betiko ezetsiko litzateke.

3.– Eskolek erregistro-liburu edo datu-base bat izango dute, ikastaro bakoitzeko diplomen zerrenda identifikatzailea jasotzeko, eta baita diplomadunei jadanik emandakoak zehazteko ere. Diploma ematerakoan titularraren sinadura eta hartze-data jasota geratu beharko dira.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Bakarra.– Agindu honen bidez Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari dagozkion eginkizunak Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak hartuko ditu bere gain, espreski ez bazaizkio beste organo bati ematen.

Artículo 10. – Solicitud y tramitación de diplomas.

1.– A la finalización de cada curso de formación, cada escuela presentará, junto a la solicitud de la emisión de los correspondientes diplomas, la siguiente documentación:

a) Memoria general de la realización del curso, incluyendo:

- Materias y temas impartidos, con su correspondiente asignación horaria.
- Listado del profesorado del curso.
- Lugar y fechas de realización.
- Aplicación concreta de los criterios de evaluación, tanto de la etapa teórica como de la práctica, así como informe de la realización de las prácticas de cada uno/a de los alumnos/as y descripción de los criterios seguidos para la evaluación final.

b) Acta de evaluación, diferenciando:

- Listado inicial de matriculados/as y criterios de selección.
- Listado de los y las alumnos/as evaluados/as finalmente como aptos/as.
- Listado de los y las alumnos/as evaluados/as finalmente no aptos/as.
- Listado, en su caso, de los y las alumnos/as pendientes de evaluación, por no haber concluido, en su caso, la etapa práctica.

2.– El plazo de solicitud de diplomas, previsto en un máximo de dos meses desde la finalización del curso, dispondrá, para aquellos/as alumnos/as que explícitamente así se haga constar en la correspondiente acta, de una única moratoria, que expirará el 31 de diciembre del año siguiente. Una vez concluido este último plazo y si no se hubiere presentado debidamente la correspondiente solicitud de diplomas, no será admitida ninguna solicitud posterior, quedando los/as alumnos/as afectados/as desestimados/as definitivamente.

3.– Cada escuela llevará un libro registro o base de datos en la que se anotará la relación identificativa correspondiente a los diplomas obtenidos por curso y los que ha entregado a sus titulares, quienes dejarán constancia firmada y fechada de su recogida.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Única.– Las funciones atribuidas en la presente Orden al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, cuando no estén expresamente asignadas a otro Órgano, serán ejercidas por la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Lehena. – Prestakuntza-egitarauen aldizkakotasunari buruzko betebeharrak, Agindu honen 4. atalean aurreikusitakoak, soilik eskatuko dira eskola onartu eta hurrengo urtetik aurrera.

Bigarrena. – Apirilaren 7ko 71/1998 Dekretuaren Aldi Baterako Xedapenean ezarritakoari helduko dioten eskolek, eta Agindu hau indarrean jarritakoan dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastarorik eman badute edo ematen ari badira, Agindu honen xedapenetara egokitzen direla adierazi eta agirien bidez frogatu beharko diote prestakuntza-iharduera jarraitzeko asmoa adierazi dioten Organoari, beti ere Agindua indarrean jartzen denetik gehienez hiru hilabeteko epean. Hala ere, honek ez du ezesten dokumentazioa gaurkotu behar izatea, horrela badagokio, martxoaren 1eko 47/1988 Dekretuak eskatzen duen arabera, kontuan harturik batez ere hirugarren ataleko h) eta i) idazatietan eskatzen den dokumentazioari buruzkoa.

INDARGABETZE-XEDAPENA

Indargabetuta gelditzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan: Kultura Sailburuak 1988ko abuztuaren 30ean emandako Agindua, suspertzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauari buruzkoa, eta Agindu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila berdineko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. – Kultura Sailburuari ahalmena ematen zaio beharrezko xedapen guztiak eman ditzan Agindu honetan aurreikusitakoa garatzeko.

Bigarrena. – Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko ekainaren 12a.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. – Las obligaciones, en cuanto a la periodicidad de los planes de formación prevista en el Artículo 4 de la presente Orden, serán únicamente exigibles a partir del año siguiente a aquél en que fuera reconocida la escuela.

Segunda. – Aquellas escuelas que se acojan a lo dispuesto en la Disposición Transitoria del Decreto 71/1998, de 7 de abril, y hayan impartido o estén impartiendo algún curso de dinamizador/a sociocultural a la entrada en vigor de la presente Orden, deberán hacer constar y justificar documentalmente ante el Órgano al que hayan comunicado la continuidad de su actividad formativa, en el plazo máximo de tres meses desde la entrada en vigor de la presente Orden, que se adecuan a lo dispuesto en la presente Orden, sin perjuicio, en su caso, de la actualización de la documentación requerida en el Decreto 47/1988, de 1 de marzo, por el que se regula el reconocimiento de escuelas de animación sociocultural, especialmente en lo que hace referencia a la documentación requerida en los apartados h) e i) de su Artículo tercero.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco la Orden del Consejero de Cultura de 30 de agosto de 1988 sobre programas mínimos de formación para animadores socioculturales y cualquier otra disposición de igual o inferior rango se oponga a lo dispuesto en la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. – Se faculta a el/la Consejero/a de Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo de lo previsto en la presente Orden.

Segunda. – La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de junio de 1998.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.